

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEGAZPIKO UDALA

Legazpiko ostalaritza eta turismo sektoreentzako laguntza programaren oinarriak eta deialdia.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Legazpiko ostalaritzako eta turismoko sektoreak babestea eta zuzenean laguntza ekonomikoa ematea, Covid-19aren hedapenari eusteko hartutako neurrien eragina minimizatzeko eta haien jarduerari ahalik eta lasterren berrekitzea ahalbidetzeko.

Gastu hauek lagunduko dira diruz:

- Merkataritzako lokala alokatzea.
- Energiaren, uraren eta antzekoen kontsumoa.
- Telefonoaren, Internetaren eta antzekoen kuotak.
- Publizitatea.
- Aseguru-primak.
- Gestoria.
- Alarmen eta su-itxalgailuen mantentze-lanak.
- SGAE.

Gastu horiei dagozkien fakturak alarma-egoera deklaratu zen dataren (2020-03-14) eta laguntza hauek eskatzeko epea amaituko den dataren artekoak izango dira.

2. artikulua. Diru-baliabideak.

Programa hau Legazpiko Udalen 2021erako Aurrekontu Orokorretako 1 0301 431 00 471 21 - «tokiko negozio txikiaren-tzako laguntzak» aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da. Programa honen diru-hornidura 105.000 €-koa da.

Eman beharreko laguntzen bolumen totalak ez du diru-kopuru hori gaitutuko; halaber, ez du diru-hornidura hori eguneratze-tik ateratzen den kopurua gaitutuko, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira.

Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz diru-laguntzen hasierako diru-hornidura handitzeko, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea, eraginkorra izan dadin.

3. artikulua. Laguntza emateko araubidea.

Diru-laguntza zuzeneko emakida bidez emango da, eta eskaerak aurkeztu ahal izapidetu eta ebatziko dira, programa honetara bideratutako diru-hornidura agortu arte.

4. artikulua. Onuradunak.

Legazpin kokatutako ostalaritza- edo turismo-jarduera baten titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak.

Zehazki, hauentzako dira laguntzak:

- Tabernak.
- Jatetxeak.
- Ostatu turistikoak: hotelak, landa etxeak, apartamentu turistikoak,...

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Bases y convocatoria del programa de ayudas a los sectores de hostelería y turismo en Legazpi.

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

Artículo 1. Objeto.

Proteger y dar soporte económico de forma directa a los sectores de hostelería y turismo de Legazpi para minimizar el impacto de las medidas adoptadas para contener la expansión de la Covid-19 y posibilitar que se produzca lo antes posible un relanzamiento de su actividad.

Se subvencionarán los siguientes gastos:

- Alquiler del local comercial.
- Consumo de energía, agua y similares.
- Cuotas de teléfono, Internet y similares.
- Publicidad.
- Primas seguro.
- Gestoría.
- Mantenimiento alarmas y extintores.
- SGAE.

Las facturas correspondientes a estos gastos deberán estar comprendidas entre la fecha de declaración del estado de alarma (14-03-2020) y la fecha de finalización del plazo de solicitud de esta ayuda.

Artículo 2. Recursos económicos.

Este programa se financiará con cargo a la partida presupuestaria 1 0301 431 00 471 21 «Ayudas al pequeño negocio local» de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2021 y una dotación que asciende a 105.000 €.

El volumen total de las ayudas a conceder no superará esta dotación o la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

La ampliación de la dotación inicial de las ayudas como consecuencia de la ampliación del crédito presupuestario no requerirá de nueva publicación de la convocatoria para su eficacia.

Artículo 3. Régimen de concesión de la ayuda.

La concesión se efectuará en régimen de concesión directa y las solicitudes se tramitarán y resolverán conforme se vayan presentando, hasta que se agote la dotación destinada a este programa.

Artículo 4. Personas beneficiarias.

Personas físicas y jurídicas titulares de una actividad de hostelería o turismo ubicada en Legazpi.

Concretamente estas ayudas se dirigen a:

- Bares.
- Restaurantes.
- Alojamientos turísticos: hoteles, agroturismos, apartamentos turísticos...

– Bidaia agentziak.

– Turismo aktiboko enpresak: prezio baten truke jolas-, kirol- eta abentura-jarduera turistikoak modu ohikoan eta profesionalean ematen dituztenak, eta, funtsean, jarduera horiek garatzen diren ingurunean naturak berak eskaintzen dituen baliabideez baliatuta praktikatzeko direnak; jarduera horiek, gainera, berezko dute arrisku-faktorea edo nolabaiteko trebetasun-maila.

Turismo aktiboko jardueratzat hartuko dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 26ko Aginduaren I. eranskinean adierazitakoak. Agindu horren bidez, euskal turismo-sektorea mantentzeko 2021eko laguntza-programa arautu eta deitzen da.

5. artikulua. Baldintzak.

5.1. Norberaren konturako langilea edo autonomia izatea edo pertsona juridikoa.

5.2. Legazpin establezimendu bat martxan izatea eta jarduera ustiatzea. Horretarako, dagozkion udal-lizentziak izan behar ditu edo lizentzia horiek emateko prozedura hasteko eskatuta izan behar du.

5.3. Legazpiko Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea.

5.4. Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Legazpiko Udalarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean izatea.

5.5. Jarduerari gutxienez hiru hilabetez eustea, lanaldi osoan, diru-laguntza ematen denetik aurrera. Jarduera ez mantentzeko eta epe hori ez zenbatzeko salbuespen bakarria hauxe izango da: agintari eskudunek, Covid-19aren ondorioz, establezimenduak irekitzeari ezarriko dizkieten baldintzak bete behar izatea.

5.6. Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

6. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa.

Establezimendu bakoitzak diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100eko diru-laguntza jasoko du, 3.000 € arte gehienez ere.

ESKABIDEAK

7. artikulua. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

7.1. Dokumentazioa:

– Eskabide-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

– Oinarri hauetako 1. artikuluan zehaztutako diruz lagundu daitezkeen gastuen fakturak.

– Erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntza eman eta hurrengo hiru hilabeteetan jarduera lanaldi osoan mantenduko duela eta diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko desgaituta ez dagoela adieraziko duena.

– Pertsona fisikoek NAN edo bizileku-txartela aurkeztu behar dute.

– Pertsona juridikoek eskrituraren edo erakundearen eraketa jasotzen duten agirien fotokopia aurkeztu behar dute, bai eta hura arautzen duten estatutuen fotokopia ere, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta. Ez dira agiri horiek aurkeztu behar, dagoeneko udalaren esku baldin badaude.

– Agencias de viajes.

– Empresas de turismo activo: aquellas dedicadas a proporcionar, de forma habitual y profesional, mediante precio, actividades turísticas de recreo, deportivas y de aventura que se practican sirviéndose básicamente de los recursos que ofrece la propia naturaleza en el medio en que se desarrollan y a las que es inherente el factor riesgo o cierto grado de destreza para su práctica.

Se considerarán actividades de turismo activo las reseñadas en el anexo I de la Orden de 26 de enero de 2021, del Consejero de Turismo, Comercio y Consumo por la que se regula y convoca el programa de ayudas para el sostenimiento del sector turístico vasco 2021.

Artículo 5. Requisitos.

5.1. Ser persona física trabajadora por cuenta propia o autónoma o persona jurídica.

5.2. Disponer de un establecimiento en funcionamiento ubicado en Legazpi y realizar la explotación de la actividad, para lo cual debe tener las licencias municipales correspondientes o haber solicitado el inicio del procedimiento de concesión de dichas licencias.

5.3. Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en Legazpi.

5.4. Hallarse al corriente de sus obligaciones y pagos con la Seguridad Social, Hacienda Foral y el Ayuntamiento de Legazpi.

5.5. Mantener la actividad, en jornada completa, durante al menos tres meses desde que se conceda la subvención. La única excepción para no mantener la actividad y el cómputo de dicho plazo vendrá determinada por las condiciones que las autoridades competentes impongan a la apertura de los establecimientos por la Covid-19.

5.6. No estar sancionada, penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

Artículo 6. Cuantía de la ayuda.

Cada establecimiento recibirá una subvención del 100 % de los gastos subvencionables, con un máximo de 3.000 €.

SOLICITUDES

Artículo 7. Solicitudes, documentación y plazo presentación.

7.1. Documentación:

– Impreso de solicitud oficial debidamente cumplimentado y firmado.

– Facturas de los gastos subvencionables definidos en el artículo 1 de estas bases.

– Declaración responsable de mantenimiento de la actividad en jornada completa, en los tres meses siguientes a la concesión de la ayuda y de no estar inhabilitada para la obtención de subvenciones o ayudas públicas.

– Las personas físicas, DNI o tarjeta de residencia.

– Las personas jurídicas, fotocopia de la escritura o de los documentos en que conste la constitución de la entidad y los estatutos por que se rija, debidamente inscritos en el Registro Mercantil o en el que corresponda, salvo que ya conste en poder del Ayuntamiento.

– Legezko ordezkariak izanez gero, ordezkariaren NANaren edo dokumentu baliokidearen fotokopia aurkeztuko da, bai eta ordezkariaren egiaztapenak ere. Ez dira agiri horiek aurkeztu behar, dagoeneko udalaren esku baldin badaude. Zuzenbidean balio duen edozein bideren bidez egiazta daiteke (notario-ahalde, eskriturak...).

– Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria (honako agiri hauetako edozein izango da baliozkoa): banku-laburpenaren kopia; libretaren kopia; banketxeak emandako ziurtagiria edo banketxeak dirulaguntzaren eskabide-orriko «Kontu-zenbakia» atalean jarritako zigilua. Ez da agiri hori aurkeztu behar, dagoeneko udalaren esku baldin bada.

– Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

– Legazpiko Udalak eskatu beharrekotzat jotzen duen beste edozein agiri osagarri.

– Legazpiko Udalak zuzenean egiaztatuko ditu sektore publikoko edozein erakundetan behar diren datuak, artikuluko honetan eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko.

Interesdunak berriaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri eskabidea aurkeztu duen unean, eta, kasu horretan, ziurtagiriak eta eskatutako beste datu batzuk aurkeztu behar ditu.

7.2. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 30 laneguneko (astelehentik ostiralera) izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

7.3. Eskabideak aurkeztea:

Pertsona fisikoek bi eratarik aurkez dezakete eskabidea:

– Aurrez aurre, Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

– Telematikoki, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoen bidez: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Pertsona juridikoen telematikoki aurkeztuko dute eskabidea, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoen bidez: <https://egoitza.legazpi.eus>.

8. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskaerak akatsen bat badu edo agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da antzemandako akatsak zuzentzeko.

10 egun horiek igaro eta zuzendu ez badira, eskaera ondorioz gabe geratu dela jakinaraziko da, eta artxibatu egingo da.

DIRU-LAGUNTZA EMATEA

9. artikulua. *Izapidetzeaz arduratuko den administrazio-unitatea.*

Industria, Merkataritza eta Turismoa zerbitzuak izapidetuko ditu eskabideak.

Diru-laguntza ematea ebatzea Legazpiko Udaleko Alkatetzaren eskumena izango da.

10. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Legazpiko Udalak aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela egiaztatuko du eta diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko du, banku-transferentzia bidez, eskabide-orrian adierazitako kontu-korrontean.

Ezinbestekoa da jarduera lanaldi osoan mantentzea, diru-laguntza eman eta hurrengo hiru hilabeteetan.

Osterantzean, onuradunak ez-betetzearen aldiari dagokion zenbateko proportzionala itzuli behar du.

– En caso de representación legal, fotocopia del DNI o documento equivalente de el/la representante y acreditación documental de la misma, salvo que ya conste en poder del Ayuntamiento. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...).

– Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: Copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención, salvo que ya conste en poder del Ayuntamiento.

– Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones y pagos con la Seguridad Social, Hacienda Foral.

– Cualquier otra documentación adicional que, en su caso, considere necesaria solicitar el Ayuntamiento de Legazpi.

– El Ayuntamiento de Legazpi verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acreditar los requisitos exigidos en este artículo.

La persona interesada podrá oponerse expresamente a dicha acreditación en el momento de presentar la solicitud, debiendo aportar en este caso los certificados y otros datos requeridos.

7.2. Plazo de presentación de solicitudes:

El plazo para la presentación de solicitudes comenzará al día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y se extenderá durante 30 días laborables (de lunes a viernes).

7.3. Presentación de solicitudes:

Las personas físicas podrán elegir entre dos modos de presentar la solicitud:

– De forma presencial, en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Legazpi.

– De forma telemática, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Las personas jurídicas presentarán la solicitud de forma telemática a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Artículo 8. Subsanación de defectos.

Cuando la solicitud tenga algún error o falte documentación se dará un plazo de 10 días para corregir los defectos detectados.

Si pasados los 10 días no se han corregido se comunicará que la solicitud queda sin efecto y será archivada.

CONCESIÓN DE LA AYUDA

Artículo 9. *Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Industria, Comercio y Turismo.

La resolución de la concesión competirá a Alcaldía del Ayuntamiento de Legazpi.

Artículo 10. Abono de la ayuda.

El Ayuntamiento de Legazpi comprobará que la documentación presentada es correcta y abonará la subvención, en un único pago, mediante transferencia bancaria al número de cuenta corriente indicado en el impreso de solicitud.

Es imprescindible mantener la actividad en jornada completa, durante los tres meses siguientes a la concesión de la subvención.

En caso contrario, la persona beneficiaria deberá devolver la cantidad de forma proporcional al periodo de incumplimiento.

Kalkulu hori egiteko, ez dira kontuan hartuko Covid-19aren ondorioz agintari eskudunek agindutako nahitaezko itxiera-aldiak.

11. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntza hau bateragarria izango da helburu bererako diren beste laguntza batzuekin.

12. artikulua. Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza Alkatetzak ebatziko du, diru-laguntza emateko ardura duen organoak, alegia.

13. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Legazpiko Udaleko Osoko Bilkuran, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkeztu harik eta berraztertze errekurtsoa berriaz ebatzi arte edo ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

14. artikulua. Izaera pertsonaleko datuak babestea.

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriak osorik onartzen dituela adierazten du.

Era berean, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta Legazpiko Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea; halaber, rien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

15. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eta deialdia egiteko organo eskuduna Legazpiko Udaleko Osoko Bilkura da.

Legazpi, 2021eko apirilaren 6a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (2377)

Para este cálculo no se tendrán en cuenta los periodos de cierre obligatorio decretados por las autoridades competentes a causa de la Covid-19.

Artículo 11. Concurrencia con otras ayudas.

Esta ayuda será compatible con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Artículo 12. Interpretación de las bases.

Cualquier duda que pueda surgir sobre la interpretación de estas bases, será resuelta por Alcaldía, órgano encargado de conceder la subvención.

Artículo 13. Recursos.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Artículo 14. Protección de datos de carácter personal.

Con la presentación de la solicitud de subvención, la persona solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en esta convocatoria y que acepta íntegramente las bases.

Asimismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Legazpi y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Artículo 15. Órgano competente.

El órgano competente para la aprobación de estas bases y convocatoria es el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi.

Legazpi, a 6 de abril de 2021.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (2377)